

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

#### Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta oinordekotza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko administrazio egintzak jakinaraztea

Ezinezkoa izan da jakinarazpena egitea, administrazioari egotzi ezin zaizkion kausak direla medio, eta, beraz, behin Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 108. artikulua eskatzen dituen gutxieneko jakinarazpen saioak egin ostean, dei egiten zaie, iragarki honen bidez, hemen behean aipatzen diren zergadunei edo haien ordezkariari, ager daitezenez atal honetara, beheko zerrenda honetan ageri diren administrazio prozeduren ondoriozko administrazio egintzak jakinarazteko.

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko eta oinordekotza eta dohaintzen gaineko zergen bulego kudeatzailean (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) agertzeko, zerga horiek kudeatzen dituen bulegoak izapidetutako prozeduretan egiteke dauden jakinarazpenak gauzatzeko. Interesdunak edo haien ordezkariak astelehenetik ostiralera 08:15etik eta 14:30era bertaratu ahal izango dira.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 19a

Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua  
IGNACIO NANCLARES REIZABAL

IFZ	PROZEDURA
07235883Z	SU-300048-2024 likidazioa
14904243J	Errekerimendua
16244367L	Agiri eskaera
16275358Y	Luzapen berezia
16288625W	Komunikazioa
29947480P	Agiri eskaera
72752143S	AJ-300112-2024 likidazioa
72811306E	SU-300116-2024 likidazioa
72834002V	TR-300101-2024 likidazioa
72834002V	TR-300102-2024 likidazioa
72834002V	AJ-300096-2024 likidazioa
76717186L	Berraztertze errekurtsoa